

B

BARREN



Pintura gerra hasi da

Paint ball Mendaroko zelaietan

AIRE BERRIAK

CAIXA CATALUNYA SUKURTSAL BERRIA DUZU

Denbeka aldi luze egiten dene eta zure esku iturbide aukera zabalagoak jarrizen salatuaz gero Caixa Catalunya. Horregatik, sukurtsal berria jarri duzue zure zerbitzura.

Itan ere, Caixa Catalunya, zuzendik hurbilago itan nahi duzue.

HEMEN AURKITUKO GAITUZU:

PLAZA AITA AGIRRE, 1
20870 ELGOIBAR
(GIPUZKOA)
Tel: 943 748 520
Fax: 943 744 213

Caixa Catalunya



BISITA EZAZU GURE
SUKURTSALA,
ETA ERAMAN OPARIA.

CAIXA CATALUNYA
Iturbide gehiago zuretzat.



INFORMAZIOA ZURE ORDUETAN
902 40 88 40
www.caixacatalunya.es

MGS

Mutua General de Seguros

ASEGURU MOTA GUZTIAK

Istripu aseguruak
Istripuak errentarekin
Gaixotasun aseguruak
Auto aseguruak
Etxe aseguruak

Aurrezte planak
Jubilazio planak
Bizitza aseguruak
PYME aseguruak
Denda aseguruak

Diru inbertsioak
- "Vida fondo" (unit link)
- Burtsa
- Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- PPA desgrabatze eta kapital ziurtatua

MGS

Jausoro plaza, 1 behea
20870 Elgoibar
Tel: 943 74 26 99
Faxa: 943 74 12 35
E-posta: mgsluisa@euskalnet.net
www.mgs.es

DELEGATUA: M. Luisa Urain Arakistain Aseguru agentea



Maite Unzueta izan da aurtengo urtero bezeroen artean zozketatzen den telebistaren irabazlea. Barkatu aurreko aleko akatsa.

Euskara salbatuta dago... bai?

1960. urte inguruan, gazte ginela eta ilusioz beteta, baina jakintza gutxi eta irakasteko materialik gabe, linboan zegoen euskara berpizte lanetan euskaltzale izatea egokitu zitzaizgun. Gau Eskolak eta ikastolak perretxikoak bezala sortu ziren Euskal Herri osoan. Ordu-tik gaurdaino egindako lana ikaragarria izan da eta euskararen geroari begira, erabakigarria. Gaur jende asko mugitzen da euskararen bueltan, asko dira ikasi dutenak, eta berturik dago etorkizuna. Baina "salbatu" hori, (lehengoan BARRENen zetorren bezala), gehitxo esatea dela iruditzen zait. Oraindik euskarak ez du hizkuntza normal baten lekua hartu: hemen bai eta han ez hitz egin daiteke; honekin bai baina harekin ez; gauza batzuetarako bai baina beste batzuetarako ez... Errealitatea begiratzuz ohartuko gara egoera guztiz disglósikoa dugula: hizkuntza bat nagusitzen zaio besteari.

Arrisksua da eta motibazio eza izan daiteke arrazoietakoa bat: euskara ikasi duen euskaldunberri askori euskara dorpetzen ari zaio. Euskaldun zahar askok nahasian egiten

ditu bi hizkuntzak eta zabartzen ari zaigu berbeta. Zail dago hizkuntzaren egunerokotasunari heltzen inguruko politikariak ikusita. 30 urte daramatzate Euskadi defendatzen, baina ez dute astirik izan euskara ikasteko. Gauza bera hainbat zerbitzu publiko eta pribatutan. Zertarako balio du eskubideak ezin baduzu erabili?

Orduan baino hobeto gaude, ez da dudarik, hiltzeko zorian zegoen-eta. Tresnak ere baditugu: liburuak, irakasleak, teknikariak... baina gogoak ez dakit behar adina daukagun. Gainera ez gara laino beltzetatik libratzen, hortxe dago "Egunkaria" kasua eta iruditzen zait gehiago etorriko zaizkigula (ekarriko dizkigutela). Giza legez ezin bada gerra legez menperatuko dute gure hizkuntza eta gure euskal hiztun izateko eskubidea. Beraz, euskara salbatuta, bai?

Felix Etxeberria



"Zertarako balio du eskubideak ezin baduzu erabili?"




INAUTERIEKAKO ERRETRATU LEHIAKETA

Inauterietako argazkiak sarituko ditugu

- 1. saria: Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria.*
- 2. saria: Zumaiako Zelai Talaso hotolean bi lagunentzako zirkuitoa.*
- 3. saria: Atsedean Kiromasajea zentroan bi orduko tratamendua.*



www.elgoiBARREN.net

A portrait of Maitena Zubia, a woman with short, dark hair, looking directly at the camera. She is wearing a black jacket over a black t-shirt with red text. The background is a stone wall with steps.

“Ongarriko programazioa nahiko ausarta da; ez dira beti film samurrak izaten”

MAITENA ZUBIA

ONGARRI ZINE-KLUBEKO IDAZKARIA

Maitena Zubia Ongarri Zine Klubeko idazkaria da. 250 emanaldi egin berri ditu Elgoibarren zine independentearen erreferentia den elkarteak eta bide horretatik jarraitzeko asmoa dute, zinegile berritzaileen proposamenak herritarrei aurkeztuz. Bera arduratzen da programazioa aukeratu eta kudeatzeaz. Berarekin batera, Lutxi Arregi (presidentea), Lorea Basalo (bokala) eta Iñaki Agirre, arima eta dinamizatzailea, daude. Psikologa honek ez dio zinezale izateari lagako, izan ere zine klubak zinezaletasunaren bidez jarraitu baitu izaten hain gazte ibilbide luze honetan. Ilusioa izan da ongarririk onena.

Zein lotura izan duzu Ongarriekin?

Zine klubera joaten nintzen eta zinezalea izan naiz txikitatik. Fijo horietakoa nintzen. Karrera bukatu eta gero, ostegun askotan joaten nintzen. 90eko hamarkadan hasi nintzen joaten eta han ezagutu nuen Iñaki. Eskaintza bat egin zidan.

Ez zenuen zalantzarik izan?

Ez, hasieran ez nuen nire burua programazio antolaketan ikusten. Zine afizionatua izaten jarraitzen dut. Zinea gustatzen zait eta jarraitzen dut, baina besterik gabe. Baina berak ikusten zuen modua talde bat eratzeko eta ibilbidea hori izan da 2000tik gaur arte.

Gogoratzen duzu zein izan zen Ongarri ikusitako lehen filma?

Ez, hainbeste ikusi ditut! David Lynchen *El hombre elefante* oso txikia nintzela ikusi nuen Eibarren eta harri eta zur utzi ninduen.

Hasieran pelikula komertzialak ikusiko zenuen, ezta?

Betidanik izan naiz zinezalea eta Plaentxian zine kluba zegoenean ere hara joaten nintzen. Proiektista zen lagun bat nuen han eta Eibarren Rialto zineman, bazegoen beste zine klub bat, eta hara ere joaten nintzen nire ahizparekin.

“Ikusleen begirada hezi egin nahi dugu, ikusiz estimatzen direlako filmak”

Ongarrik publiko fidelari eusten dio?

Ehun lagun inguruk ezagutzen dute ematen diren filmak. Ez dira beti etortzen baina 40 bat inguru joaten dira ostegunero. Pozik gaude. Erreferente bat da. Zine klubaren elkarrekin bat osatuta dago aspaldidanik, eta hasi ginenean Foru Aldundiko laguntzak eskatzen egin izan dugu bileraren bat.

Ongarrik duen programazioa beste zineklubaren eskaintzetatik bereizten da?

Uste dut nahiko ausartak garela. Noiz-behinka sartzan dugu ikusteko oso erraza izango ez den filmen bat.

Esaterako?

La Soledad eta *En la ciudad de Sylvia*. Ez dira ikusteko samurrak, baina zinearen hizkuntza aldetik badute ahalegin berezi bat. Ongarriren ibilbidean bilatu izan da lengoia berri hori, ahaztu gabe zaletuentzako bide-ratuta dagoela.

Ez dago drama gehiagi?

Ez dut uste. Bizitza ere ez da samurra. Chaplinen pelikulak oso gogorak ziren, bera komikoa bazen ere. Drama kontzeptua baino gehiago estilo berezia bilatzen dugu.

Ikuslea hezi ere egin nahi duzue?

Bai, begirada elikatu, hezi, egiten da. Ahalegintzen gara ekartzen begirada berezia duten autoreak, ikusiz estimatzen direlako filmak.

Zuzendari edo zine mota bati kasu gehiago egin izan zaio?

Jendearen gustura eta gure irizpideetara mugatuta egoteaz gain, banatzaileek dute azken hitza. Ongarri zine orientala eman izan da, irakiarra...

Hollywooden ere badaude estilo pertsonala duten zuzendariak. Gaur Tim Burtonen film berria estreinatuko da...

Bai, azkenean pelikula horiek zine komertzialetan ikus daitezke. Gehiago begiratzen dugu Europara edo Asiara.

Zine jaialdietara (Cannes, Berlin, Venezia) begira zaudete. Irizpide egokiak dira?

Batzuk bai, beste batzuk ez hainbeste. Cannes bada egokia.

Sundancen ere babesten da zine independentea, gero eta interes gehiago badago ere...

Robert Refordek babesten du momentuz.

Baina zaila da egun zine independentea bereiztea. Zein jaialdi da zuentzat neurgailu aproposena?

Xixongoa. Gustatuko litzaiguke dirua edukitzea jaialdietara joateko, baina Donostiako Zinemaldiarekin konformatzen gara.

Emanaldiak eta gero eztabaidak sortzen saiatzen zarete?

Komeni da testuingurua azaltzea, zinegilearen berri ematea...

Idatziz ere egin liteke...

Baina horrek denbora eskatzen du eta esfortzua. Hotzegia da agian pelikula gordinean botatzea azalpen gehiagorik eman gabe. Aurkezpen nagusia pelikula bera da. Sarreran egoten naiz txartelak banatzen eta jendeak hitz egiten du pelikularen inguru-

ruan. Gaur egun badago modua pelikulen inguruan informazioa jasotzeko.

Askotan ikuslea ez da zinera informazio gehiagi jasota joaten?

Batzuetan bai. Ez dugu gure burua aditutzat aurkeztu nahi. Pelikulen inguruko informazioa idazten hasi nintzenean nire iritzia zen, nire bizipenen deskribapen bat.

“Erronka izango litzateke aurrera begira monografikoak egin eta bultzatzea”

Ballabide nahikorik baduzue?

Herri txiki batean gaude eta Foru Aldundiko eta Udaleko hitzarmenekin aurrera goaz. Diru kontuei baino erreparatu gehiago egiten diogu gure nortasunari.

Zein erronka dituzue?

Irailean lana egin izan da Zinemaldiko proposamenekin. Gabonetan tabernarietara lagundu dute dokumentala eta musika uzartzan. Egon zen garai bat herriko hainbat talderekin batera egiten zela programazio bat. Aurrera begira gure erronka monografikoak bultzatzea da.

250 emanaldi Transilvania-rekin bete zenuen. Beste ospakizunik egingo duzue?

Hilaren 31n ekitaldi bat egingo dugu Goya sariaren harira; detaile txiki bat izango da. Ez gara urteurrenak eta zenbaki borobilak ospatzearen aldekoak.

Ongarriren parekorik badago Gipuzkoan?

Ez daude asko. Ongarri maila ona du.

Zein formatutan ematen dituzue filmak?

DVDean oso gutxi bota dira, gehienbat 35mm-tan. Tentatuta gaude jauzi bat emateko, oso zaila baita nahi duzuna ekartzea.

Bertsio originalean beti?

Beti ez. Bertsio originalean denean ere kritikak jasotzen dira, irakurri behar delako. Frankismoak asko iraun zuen, eta bikoizketak jarraitzen du. Bestela guztiok ingelesez jakingo genuke.



Zelan eragin dizu oinarrizko

Saltzaile eta erosle batekin hitz egin dugu prezio igoeren inguruan. Dendariak bi auzi ditu: batetik saldu eta erosi egiten du, eta bestetik, erosleen kexak agoantzaten ditu. Erosleen artean ere denetatik dago: gerrikoa asko estutu behar duena eta lasaigo bizi dena.

ZU +

LOREA VAZQUEZ

Dendaria

“Oinarrizko osagaiak igo dira gehien: esnea, olioia, arrautzak eta deribatuak”

Noiztik duzue irekita denda?

Datorren hilabetean urtebete egingo dugu denda ireki genuela. Gure denda Granadako kooperatiba bat da, baina denda bakoitzak nortasun propioa du. Osagai batzuk kooperatibari eskatzen dizkiogu, eta gainontzekoak ez. Estatu osoa hartzen du bere gain kooperatiba honek.

Zein da zuen espezialitatea?

Itsasoz handiko produktuak.

2008an prezioak asko igo dira?

Dena igo da. Oinarrizko osagaiak duela gutxi igo dira: esnea, olioia, arrautzak eta deribatu guztiak. Hortaz, arrautza eta esnearekin egiten den guztia ere igo egin da.

Zerbait merketu da?

Ez dut uste.

Zer da gehien saltzen duzuen?

Barazkiak. Horien prezioa astero igo eta jaisten da. Baina gainontzekoak igotzean sortzen dira arazoak.

Soldatak ez dira igotzen...

Hori da arazoa.

Baina, hala ere, gure bizitza mailari eutsi nahi diogu...

Lehen dirua ez bazenuen ez zinen oporretara joaten baina orain bai. Mailegu azkarrak eskatu eta urrutira joaten gara: Kuba, Costa Rica, Venezuela... Diru gutxiago daukagu eta gehiago gastatzen dugu.

Jendea kexatzen da prezio igoera dela eta?

Askok. Ni ere bai, dendari kalte egiten diolako. Bost zentimo igotzen bada, agian bost zentimo gehiago irabaz ditzakezu baina era berean, gutxiago sal dezakezu.

Eskaintzarik egiten da?

Bai, orain gehiago. Esne etxeak ari dira eskaintzak egiten bere kabuz, hipotekak neurri batean arinduko dituztela edo kupoia bidaliz 30 zentimo itzultzen dutela esanez.

Bezero fidelak dituzue?

Bai, betikoak dira.

Saltoki gune handiek kalte handia egiten dizute?

Bai, hemen Elgoibarren gainera asko ditugu. 10.000 biztanle dituen herri batentzako, asko.

Hala ere animatu zineten denda irekitzera...

Bai, lana dagoen bezala, edo zuk egiten duzu zerbait edo akabo.

produktuen prezio igoerak?

+ NI



LIDE ALTUNA

Eroslea

“Erosleok badakigu prezioak igo direla baina ez da beste erremediorik geratzen”

Beti denda berera joaten zara erostera?

Bai, halaxe da. Behar dudan bakoitzean beti joan ohi naiz denda berberetara.

Nahiago dituzu denda txikiak erosketak egiteko?

Bai, ez naiz saltoki gune handietara joaten. Denda txikietan topatzen ez dudan produkturen bat erostera bakarrik joaten naiz. Oliba-olio birjina, esaterako.

Erosteo saskia bete-beterik duzu. Zer erosi duzu?

Laranjak, yogurrak...

Gainontzeko osagaiak non erosten dituzu?

Baserritarrak ekartzen dizkit etxera barazkiak, patatak, babak, esnea...

Zenbat zarete etxean?

Bakarrik bizi naiz.

2008ko prezio igoera nola bizi duzu?

Erosleok badakigu prezioak igo egin direla eta ez da beste erremediorik geratzen.

Dena garestitu da...

Hobe garestituko ez balira, baina dagoena dago. Ondo jatea gus-

tatzen zait eta horretarako dirua laga behar da. Lehen 5.000 pezetarekin kalera irten eta gauza asko eros zitezkeen baina gaur egun di-da batean gastatzen dira. Gaur egun 5.000 pezeta eurotan ez da ezer; euroak, prezioak borobilduz, horixe eragin du.

Bakoitzak atera behar ditu kontuak...

Bai, etxera joan eta galdetzen diozu zure buruari: baina zertan gastatu dut ni ba dirua? Norberak kontuak atera behar ditu duenarekin...

Ez zaizkizu izoztutako produktuak gustatzen?

Ez, produktu freskoak gustatzen zaizkit.

Labeleko produktuak ere erosten dituzu?

Bai, hemengo produktuak gustatzen zaizkit. Kanpoan ere badaude produktu onak, baina baserrikoak nahiago ditut. Arraindegira eta haragitegira joaten naizenean ere, hemengo produktu freskoak erosi ohi ditut. Erosten dudan lenteja ez da hemengoa. Baserritarra etxera etortzea ohituta nago.

Baserritarra zure etxera doa orduan...

Bai esnea banatzen du. Eguneko esnea zoragarria da. Asko irakiten dut, badaezpada ere.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Juan zan hillaren 27xan hitzaldi edarra eman ziguen Mausitxako eta Altzola-Berasetako Iñaki bixak. Ederki asko azaldu zaben gure eskualdian basarrixak bizi daben egoeria. Emandako datuekin garbi asko islatu zaben egoeria benetan beltza dala, euren bixen kasuak illuntasun horren argi printzak badia ere.

Egoera horrek hiru arduradun badi-ttuala azaldu zaben: batetik, basarritarrak eurak, ez dabelako jakin bihar dan moduan aurre egitten egoerari; bestetik, agintarixak, ez diuelako ematen biharko laukien garrantzixa; eta azkenik, geu herritarrok, ez doguzelako kontsumitzen geure produktuak. Honen danonen isla edarra izan zan hitzaldixa bera ere, goixan aittatutako hiru atal hórretako oso gitxi izan ginan-ta, hala ere, bertaratu giñanok majo gozatu genduan bai hitzaldixan bai haren ostian eman zittuen mokau gozuekin.

Handik bi egunera Gabon Zaharretako perixia izan zan, eta berez honen sorreraren oinarrixa basarrixa bera bazan ere, 27xan entzundakuak aintzat hartuta, zelako kontraesana: kaleak jendez lepo, basarritarren produktueri begira lagun ugari, baina erostailiak? Erosi zabenek astero erosten ete dittue ala orduan besterik ez? Hau ikusitta zer uste ete dau herritarrek? Ba ete daki zer esan nahi daben basarritarra izatiak? Jakin nahi ete dau?

Uste dot ahalegin haundixa egin biharko litzakela, honetan ere hezi gaitian, izan ere, basarrixi eutsi ezian, gure sustarixak ere poliki-poliki eten eingo dira-ta,

eta sustrairik pe, arbolia ez da luzaruan biziko.

A.L. ☺

Ainhoa Gonzalez andre agurgarria:

Zure eskutitzari erantzunez, Kirol Patronatuko zuzendari naizen honek, honako hau adierazi nahi dizut:

- Banakako abonuaeren igoera ikaragarria dela diozu. Igoera %3,4 izan dela jakingo duzu, KPI-IPC (%4,2) baino baxuagoa. 8,1 euro hilean ordaintzea, egunean 27 zentimo, larregi dela iruditzen zaizu eskaintzen ditugun zerbitzuak kontutan izanda (Olaizaga, Mintxeta eta Azkoitiko igerilekuak, saunak, Mintxetako eta kiroldegiko muskulazio gelak, squash eta frontoi txikia, rokodromoa, Donostiako Izotz jauregian eta Gipuzkoako termetan beherapenak...). Zure iritzia aldatzeko modu bakarra, abonua dohain eskaintzea litzatekeela pentsatu dut idatzia irakurtzean.

- Kiroldegiko muskulazio gela duela 12 urte bezala dagoela diozu. Ekainetik hona muskulazio gela horretan egon ez bazara nik kontatuko dizkizut egin ditugun aldaketak: zoru berria, muskulazio makina berriak (kuadrizep extensioa, mankuemeroa, eliptika, step eta bankua). Guztira 6.000 euro gastatu genituen eta aurten ere bizikleta berriren bat jarriko dugula ziurtatzen dizut, duela astebe-te eskatuta baitaude. Hor daukazu diru sarrerak nora joaten diren adibidea. Beste adibide bat: urtariletik aurrera kiroldegia eguerdian ere irekita egongo da, astean

zehir, 7:00etatik 21:30etara. Kiroldegiko muskulazio gelaz aparte, jakingo duzu ordaintzen duzun abonuaerekin Mintxetako muskulazio gela ere erabili dezakezula.

- Mintxetako aldageletatik ia egunero pasatzera ausartzen naiz, bai, eta egiten den garbiketa ontzat ematen dut. Bertatik jende asko pasatzen denez, agian, arratsaldean ere garbiketa hori errebasatzeko beharrean izango gara, kiroldegian egiten dugun bezala. Duela urte batzuk baino askoz ere gehiago ordaintzen dugu garbiketarik. Urtean 64.000 euroko kostua dauka garbiketak. Hala ere, jakinarazten dizut aurten garbitzaile bat gehiago izango dugula.

- Egia esan, zuk diozun Spinning gelako egoeraren berri ez neukan, eta kontutan izango dudala ziurtatzen dizut.

Ramon Mugica,
Kirol Patronatuko zuzendaria ☺

San Anton

San Anton jaixa dala eta ez dala, egun horretan Elgoibarko lantoki batzuetan jai eguna izan da, eta beste batzuetan lan eguna. Familixa barruan ere batzuk ospatzeko aukera izan dabe eta beste batzuk ez. Uste dot ordua dala eztabaida bat zabaltzeko. San Andres eguna eibartarrek, naiz eta enpresa Elgoibarren ero Itziarren egon, jai hartzen dabe, eta zer esanik ez Eibarren. Eskerrak, Elgoibarren, San Bartolomiak agostuan dira.

J.L.O ☺

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Oihana
Tarragual

Ibai Portu. Urez
betetako izen abizenak.
Naturarekin duzun miwesmena

ikusita, zure gurasoek bete betean asmatu zuten.

Ni salbaje xamarra izango nintzela nabaritu zuten hor
nonbait eta Oihana (selva)! Ez zebiltzan gaizki, ez horixe.

Izena eta izakera bat ote datoz?

Ez da erraza seme-alaben izenak asmatzea. Hala ere, batzuk
hanka-sartze ederrak egiten dituzte: seme edo alabari aita edo
amaren izena jarri, adibidez.

Ez, ez eta ez! Hori inoiz ere ez!

“Izena eta izakera bat ote datoz? Ez da erraza seme-alaben izenak asmatzea”

Demagun aita Jorge dela eta semea Jorgito. Bizi guztirako Jor-
gito izatera kondenatua. Inoiz ez da Jorge izatera iritsiko.

Harkaitz, Ekaitz, Isukaitz... gogor xamarrek ezta?

Mattin, Xixili, Ximon... goxoak. Santuen eta Ama Birjinen izenak
(bakarren bat libratzen da) ez, eskerrik asko. Enara... polita da. Li-
bre-libre hegan egin eta mundua hor goitik ikusteko. Edo Maitena,
maiteena, kuttunena izango litzatekeelako. Eki: Eguzkia. Disdiratsua
beti ere.

Ametz: zatoz jada nigana... lalala Eta kantuan hasi garela, ezin
ditugu ahaztu abestietan erabiltzen diren izenak: Eba Mirentxu, Yo-
landa... (*Cuidado con Paloma que me han dicho que es de go-
ma... lalalala*), ai ama zein txarra zen abesti hori!

Ni Mariarekin geratuko naiz. Zu zara onena. Atzo gauean barrez
lehertu ginen zure konpainian.



Ibai
Portu



Hain abiadura azkarrean aurrera (edo atzera)
doan gizarte honetan, bitxia da, baina oraindik ez ga-
ra gai izan gure izena guk geuk aukeratu ahal izateko.

Jarri diguten izenarekin bizitzen ohitu gara, halabeharrez.

Halere, izenak hautatzekotan, lehengo izenak eta oraingoak, eus-
kaldun zein ez euskaldunak, nik asko ditut gustoko. Euskal izenak,
hori bai, beti izan eta izango dute ama naturaren indarra batzeko do-
haia, eta horrek halako lilura bat pizten dit: haritz, oihan, zuhaitz,
ibai,... konturatu zaitez, Oihanatxo, animalien izenak falta zaizkigula
ordea. Zergaitik ote?

Ez dut inoiz Belatz, Sai, Okil edo Ugatz bezelako izenik entzun,
bai ederrak liratekela!

Ezin utzi esan gabe, gaur egun gure aitona-amonak badoazkigun
bezala, beraien betiko izenak ere gure artean desagertzen ari zaizki-
gula pixkanaka: Fausto, Joxe Miel, Luzio, Balentin, Maria Luisa...

“Garrantzitsuena ez da izena bera, bere atzean gordetzen den pertsona baizik”

Gauzak horrela, munduan izenik gabe ez dago inor; baina garran-
tzitsuena ez da izena bera, bere atzean gordetzen den pertsona bai-
zik: izena norbanakoak egiten baitu handi; edo txiki.

Izenaren gaitetik, beraz, oso gaitetik, izana baloratu beharko ge-
nuke. Horregatik Ibai Portu ala Rufino Puerto deitu, erreka baztarreko
lertxunari begira orduak emango nituzke, eta olatuen soinu amaiga-
bea entzunez zapalduko dudana hurrengo hondartzan amesten lo har-
tuko nuke.


Azken finean, izanak izan, izenak izen, ni beti izango naiz ni.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Sokamuturrean ibiltzeko gutxieneko adina hamalautik hamasei urtera aldatu nahi du Jaurlaritzak.

Zer iruditzen zaizu sokamuturrean ibiltzeko adina igotzea?



Ion Agirregomezkorta

24 urte, mekanizatailea

Ondo, urtero egoten dira sustoak eta sgurtasun neurriak handitu behar dira. Ni hamazortzi urterekin atera nintzen lehenengo aldiz sokamuturrera.



Pakita Iraolagoitia

73 urte, etxekoandrea

Ez da adin kontua! Hamalau urtekoa hobeto ibiltzen da mozkortuta dagoen hamaseikoa baino. Sokamuturra gustatzen jata, baina traban ibiltzen den jendea neurtu behar da.



Nerea Sanchez

18 urte, ikaslea

Bi urteko alde ez da asko, baina legea bete egin behar da. Orain ere ume asko ibiltzen da sokamuturrean eta arriskutsua da. Adina aldatzekotan hamazortzi urtera igoko nuke.



Arkaitz Oteiza

11 urte, ikaslea

Ondo ez! Bi urte gehiago itxaron beharko ditut orain sokamuturrean ibiltzeko! Zezen txikiekin ausartzen naiz, baina handiekin ez; ikustera bakarrik joaten naiz.

10^{eko}
TXIKIAN



**JAIONE
TUDELA**

Ikastolako jangelan egiten du lan

1. Zer falta zaio herriari? Eta zer dauka soberan?

Parke gehiago. Umeentzako leku gehiago. Orain hobeto dago ludoteka eta Gaztelekuarekin. Txirrinduarekin ibiltzeko bidegorriak ere falta dira. Ez naiz oso txirrinduzalea, baina aldapa askorik ez balute, umeentzako proposak izango lirateke. Soberan, tabernak. Gehiegi daude.

2. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?

Saiatuko nintzateke jendea elkartzen gure herriaren inguruan lan egiteko eta 18/98 makrosumorarioaren inguruan indarra gehiago egiten. Herriko bat espetxeratu dute eta azkenean hor geratu da. Niretzako penagarria izan da.

3. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Jatorrak, zabalak, erakargarriak eta ni jaiotzez bilbotarra naizenez, iruditzen zait kuxkuxeroak ere badirela.

4. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Arnaldo Otegi. Bere izena mundu osoan zabaldu da.

5. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, instalazioak badaude, asko falta badira ere.

6. Herri euskalduna iruditzen zaizu gure herria?

Bilbotik etorrira bai. Gehixeago ere izan zitekeen, noski.

7. Ahal izango bazenu, joango zinateke beste herriren batera bizitzera? Nora?

Finkatuta nago hemen eta oso gustura.

8. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanpotar batek.

Elgoibarrekin oso gauza bitxia pasatu zitzaidan. Txiki-txikitan gurasoekin Eibar aldera joatean, ikustean etxeak hor sartuta, uste nuen ez zutela portalik. Sigma alde ere deigarria zen. Uste nuen pobreentzako herri bat zela. Gero bizitzera etorri nintzenean, bere enkantua zuela ikusi nuen, alde zaharrak bereziki.

9. Ondo komunikatuta dago gure herria?

Lehen hobeto, Bilbora joateko Pesa autobusa zegoenean.

10. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.

Txiki Eguna.

**Antonio Arrillaga kaleko zabor edukion-
tziak gainezka egiten dute askotan:**

“Begi-
ra nola aurkitu ditugun Antonio Arrillaga
kaleko zabor kontenedoreak! Kanpoaldean
barruan baino zabor gehiago pilatzen dela ematen du
eta ez da honelako egoera bat ikusi dugun lehenengo
aldia. Plaza Txikian edo Pedro Migel Urruzuno kalean
ere gauza bera gertatzen da askotan. Batzuetan za-
borrak edukiontzira sartzeko handiegiak direlako eta
beste batzuetan barrua zaborrez bete-bete eginda
egoten delako, baina sarritan ikusten dira horrelako-
ak. Dagokionari horrelako egoerak zaintzeko eskatu-
ko nioke, guri ere zaborrarekin modu arduratsuan jo-
katzeko eskatzen diguten bezala”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

**Txalo bero bat Baltasar Elkarteari 50 urte
egin dituelako:**

“San Anton Egunean ospatu genituen bazkide eta senideok Baltasar Elkartearen urrezko ezteiak. Salda eta txorizoa jan genituen lehendabizi eta, ondoren, bazkaria egin genuen. Gainera, Baltasar Elkartearen historia jasotzen duen liburua oparitu ziguten bazkide guztioi; detaile oso polita. Baltasar Elkarteko bazkide sortzaileok eta senideok argazkia egin genuen; argazki ederra. Txalo bero eta eskerrak eman nahi dizkiegu hori guztia antolatu zutenei, ospakizun polita izan genuen eta umore onean pasatu genuen eguna”.

ESKERTZA



2008ko urtarrilaren 23an hil zen
*Francisco Javier Arberas Ugalde*zen sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



2008ko urtarrilaren 18an hil zen
*Julian Iriondo Lazarobaster*en sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Industria-lurren beharra aztertzeke ikerketa sakon eta inpartziala eskatzen du EAE-ANVk

Lerun Txiki-Morterika proiektua murriztu egin du Eusko Jaurlaritzak

Elgoibarko EAE-ANV alderdiaren araberak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak "sekulago egurra" eman dio Udalari, Lerun Txiki-Morterika proiektuaren gainean. Duela urtebete Elgoibarko Ezker Aherztaleak egindako alegazioak (lur apurtze handiegia zela, basoa babestu behar zela, ibaia eta meandroa libre utzi behar zirela...) atzera bota zituen Udalak. Baina Jaurlaritzak antzerako arrazoiak argudiatuta murriztu egin du proiektua. Hala ere, Elgoibarko EAE-ANVk esan du gauzak ez direla gehiegi aldatu proiektu berrian: "Industria-lur behar handia dagoela adierazten da, 1992an bezala, horretarako ikerketa sakon eta inpartzialik egin gabe". Alkatetzak aldatu den arren, gai honen aurrean lehenengo jarrerari eusten diola esan du Elgoibarko EAE-ANVk eta erabakiak eta erabaki



aldaketak arrazoirik gabe hartzen dira, alkatetarako "agintzen" duelako.

Lur industrialaren ikerketa

Jaurlaritzak hartutako erabakiarekin pozik azaldu dira EAE-ANVkoak, "guk esandakoak, berandu bada ere, baduelako zentzurik". Egoera salatzearaz gain, El-

goibarko EAE-ANVk alegazioak aurkeztuko ditu industria-lurren beharrari buruzko ikerketa sakon eta inpartzial bat egiteko eskatuz eta Arau Subsidiarioetan aldaketa gehiago ez egiteko aldarrikatuz. Euren ustez, Arau Subsidiarioak berri arte Lerun Txiki-Morterika proiektua bertan behera lagatzea izango litzateke egokiena.

Kalean edo baserri baserri santa eskean parte hartzeko aukera




Urtero bezala, otsailaren 5ean iritsiko da Santa Ageda Eguna, eta ohitura zaharrari eutsiz, diru eskaera egiteko aprobeztatuko dute herriko bi taldek. Herriar guztiak daude gonbidatuta santa eskean parte hartzera eta bi aukera izango dituzte; kalean edo baserrietan.

Etxegiña Taldekoak otsailaren 2an irtengo dira herriko kaleak kantuz janztera. Goizeko 9:00etan elkartuko dira bolatokian eta bi taldetan banatuta zeharkatuko dituzte kale guztiak. Eguerdian Baltasar Elkartean egingo dute bazkaria.

Kaleko koroetan parte hartzeko entseguak urtarrilaren 29an eta 31n izango dira, gaueko 21:00etan Kultur Etxeko sotoan.

Elgoibarko Izarrako taldea, bestalde, Santa Ageda bezperan irtengo da, otsailaren 4an. Eguerdiko 14:30ean elkartuko dira Plaza Handian eta bi taldetan banatuta, Elgoibarko baserri gehienak bisitatuko dituzte. Iluntzean, San Migeleko soziedadean egingo dute afaria indarrak berreskuratzeko. Baserri-baserri santa eskean parte hartu nahi dutenek Elgoibarko Izarrara dei dezakete (943741626, Imanol) edo imanol@elgoibarkoizarra.com helbidera mezua bidali.

Pertsonaia Iñaki Lazarobaster



Iñaki Lazarobaster elgoibartarra izango da aurrerantzean Gipuzkoako EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) sindikatuko lehendakaria. "Berritua, batua eta alternatiboa" izan nahi du sindikatuak, eta lema hori ardatz hartuta burutu zuten V. Kongresua Hernanin. Lekukoa gazteei emanda, errotik aldatu nahi izan du nekazarien sindikatuak. Ildo horretatik, zortzi laguneko zuzendaritza talde berria gazteek osatuko dute. Gainbehera datorren sektoreari bizi berria ematen saiatu beharko da Aitzolaberasetan baserriko elgoibartarra.

Zenbakia 10.893

Poliki-poliki gure herria hazten ari da bai fisikoki eta baita populazioari dagokionean ere. Espainiako Estadistika Institutoak emandako datuen arabera, 2007ko urtarrilean 10.893 lagun zeuden Elgoibarren erroladuta, 2006an baino 203 lagun gehiago, hain zuzen ere. 1980. urtetik hona biztanleriak pixkanaka-pixkanaka behera egin du Elgoibarren eta jaitsierarik handiena 1983an gertatu zen, Mendaroko Garagartza auzoa Elgoibartik banandu zenean, hain zuzen ere. Azken urteotako goranzko joera horrek jarraitzen badu, ordea, baliteke urte gutxi barru 11.000 biztanlera iritea Elgoibarko populazioa, aspaldiko partez.

Txokoa Sallobente

Ezin ukatu elgoibartarren gustukoa dela Sallobente ingurua. Ohitura handia dago pasiaran bertara joateko eta horregatik, ingurunea txukun laga behar da. Sallobenteko umeentzako parkea berritu egin dute. Laster hasiko da eguraldia hobetzen eta ume mordoa ikusiko dugu bertan jolasten.



Enpresetako euskara planetarako diru-laguntzak

Enpresetan euskara planak martxan jarri edo garatzeko diru-laguntzak eskatzeko epea otsailaren 15ean amaituko dela iragarri du Udaleko Euskara Sailak. Informazio gehiago 943744366 telefonon.

Nekane Ortuoste

Nekane Ortuoste EAko zinegotziak Elgoibarko Hezkuntza Delegazioko presidente kargua laga du, "arrazoi pertsonalak" argudiatuz. Hilabete amaieran egingo den Osoko Bilkuran aztertuko dute gaia eta bertan erabakiko da aurrerantzean nork beteko duen kargu hori. Badirudi Alfredo Etxeberria alkateak hartuko duela bere gain Hezkuntza Delegazioaren ardura.



Taxientzako telefono zenbaki bakarra

Martxan jarri da jada Gipuzkoa osorako taxientzako telefono bakarra, eta Debabarreneko herritarrek ere telefono bera erabili ahaliko dute. 943 400 500 zenbakia izango da, zehazki, hemendik aurrera deitu beharreko zenbakia. Zerbitzua etengabe, egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez, egongo da martxan. Halere, norbere udalerriko taxi geltokiko zenbakiak ere orain artean bezalaxe jarraituko du herritarren zerbitzura. Sistema berri horri buruzko informazio gehiago jasotzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak argibideetarako telefonoa jarri du: 902 076 543.

Paint ball

Estresari gerra Mendaroko zelaietan

Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen paint ball-a 70eko hamarkada inguruan. Ganadua eta zuhaitzak zehazteko kolorezko bolak erabiltzen zituen arma asmatu zuen abeltzain batek. Ordutik aurrera, mundu osoan nabarmen hazten ari da kirol hori. Mendaron ere badu bere "txokoa". 20.000 metro karratuko lur sailean, behiak larrean ibiltzen diren Aranerreka auzoan, hiru gazte elgoibartarrek sortu dute euren enpresa. Jokoa hastera doa...

Andoni Iturbe



Mendaroko ospitaletik metro gutxira aisialdirako gune handi bat dago. Egunez eta lanegunetan, leku lasaia dirudi eta behiak ibiltzen dira larrean. Baina astebukaeretan zeharo eradaltzen da lekua. Atzera begiratu eta Bigarren Mundu Gerra garaiko kasko eta uniformeek girotzen dute Mendaroko Aranerreka auzo ingurua. Itxura militar horren atzean gero eta oihartzun handiagoa duen jokoa dago.

Frantzian, Errusian edo Italian kirol federatua da, baina gurean oraindik ez da eza-guna. Elgoibarko Iker Diego eta Karmel Leon lagunentzat, berriz, afizioa ofizio bihurtu da. "Duela hiru urte joan ginen paint ballean jokatzerara Jaizkibelera eta pixkanaka-pixkanaka gure negozio propioa osatu dugu", adierazi digu Leonek. Hasieran bere baserri inguruetan hartu behar zuen lekua, baina lagun batek alokatu zien orain duten lur sail hori. Inbertsioa gehienbat jantzietan

eta kaskoetan egiten dute. "Asko internet bidez erosten ditugu. Bigarren Mundu Gerrako kaskoen erreplikak Ameriketatik datoz". Guztira hogeita hamar dituzte.

Udatik 21 talde pasatu dira

Uda garaian hasi ziren, sanferminetan eta euren ideiak gorpuzten hasi ziren. Batera eta bestera ibili ziren informazio eta laguntza eske, eta aseguruia dute. "Jendeari sinarazten zaio orri bat jakin dezan bere ardura dela maskara kendu gabe eramatea. Guk aseguru bat dugu, baina egon litekeen arrisku bakarra hori da, begian maskararik gabe jo ezker, kaltetu egingo dela", argitzen digute. Gainontzekoa atrezzo hutsa

da: gerra kutsua, ondo pasatzea helburu duen joko honetan. Euren ere euren txokoa lehen aldiz jokatu zutenean, onartu zuten hunkigarria izan zela.

Hauxe nahi dute: bi ordu eta erdiko lehian, jendeak gozatzea arau batzuk jarraituz. "Lehenengo kolpea hartu arte beldu-rrarekin ibiltzen dira, eta gero Ramboren pare hasten dira, umeak bezala", diote. Amerikarrak edo alemanak izateko aukera dute parte hartzaileek eta uniformea jantzen duten momentutik, berotzen hasten dira. "Datozen neskak oso ausartak dira, baina mutil gehiago etorri ohi dira", azaldu dute. Joaten denak errepikatzeke gogoarekin alde egiten omen du.

**Uniformea eta maskara jartzen hastean,
paperean sartzen hasten dira parte hartzaileak**



Paint balla, zine eta telebistaren eraginez hazten ari den kirola

Bigarren Mundu Gerrako irudi eta estrategiek eragin nabarmena izan dute Diegok eta Leonek duten negozio ikuskeran. “*Salvar al soldado Ryan, Hermanos de sangre* eta bideojokoak inspirazio iturriak izan dira guretzako”, diote. Halaber irudimena behar da lur sail hori gerra eremu bihurtzeko.

Non gorde, eraso egin eta defendatu badago, baina negozioa hazten ari den heinean, osagai berriak landu nahi dituzte. Paraxutista bat jarri nahi dute zintzilik, autoak... jendeak egunerokotasunetik urrundu eta “malaletxe” hori atera dezan. Gerra kontuetan ari garela, “propaganda gutxi” egin omen dute herrian eta inguruetan, Paint Ball Mendaro enpresaren inguruan.

“Elgoibarren ez da apenas ezagutzen. Badugu Unibertsitatean *fly-errak* banatzeko asmoa jendeak ezagutu dezan zer eta nola egiten dugun”, azaldu dute. “Lagunei asko hitz egin diegu paint ballaren inguruan, eta nazkatuta daude”, diote ironikoki.

Garbitzen ere ez dute lan askorik egin behar. Orbanak desegin egiten dira eta zelaia behar bezala mantentzea da euren zeregina, sinesgarri eta eroso egitea. Markagailuak alemanen eta amerikarren taldeak nola doazen adierazten du, baina gerran irabaztea garrantzitsua bada ere, paint ballean “fair play” bat dago, joko zintzoa. Uniforme baten azpian gorderik, gerra momentuz gozamen bihurtzen da.

WEBGUNEA

www.paintballmendaro.net helbidean topa dezakezu joko horren inguruko informazio guztia: historia, jokoa, argazkiak, erreserbak... Xehetasunez eta oso modu erakargarrian aurkezten dira kirol horren nondik norakoak, ahalik eta etekin gehien atera diezaiozun.

AIRE KONPRIMITUA

Koloreetako bolak jaurtitzeko aire konprimitua duen arma batetik. Helburua aurkaria deusestatzea da, eta ahalik eta puntu gehien lortzea. Mendaron segurtasun leku bat dute partidak ikusteko eta behirik ez sartzeko.



Gure berbak

Aditza (2): NOR iragana

Pasa dan astian, aditzaren saila esplikatzeko ekin nitzan, aditz-forma neutruak eta hikakuak bereizten; NOR aditza ikusi gendun, oraineko formak. Ba, aditzen forma nagusixak ikusiko ditugu aurrerantzian, bai sail batekuak (formalak, neutruak), bai beste saillekuak (lagun artekuak, hikakuak).

Zenbaittetan pentsatu izan da hikakua errespeturik gabeko tratamendua dala, eta horregaitik baztertu izan da etxe batzuetan, seme-alaberi era horretara zuzendu gabe.

Ez dago esan biharrik ez dala horrela, ez dabala errespetu faltarik adierazten, konfiantza daguan lagunarte bat baizik. Lagunarteko jardunerako goxuagua geratzen da, gaiñera, hurbillagua.

Pasa dan asteko aditzeri segittuz, gaur iraganekuak ekarriko ditugu hona:

- Ni atzo etorri nitzan, hi etorri hitzan, haura etorri zan, gu etorri giñan, zu etorri ziñan, zuek etorri ziñaten eta harek etorri zi(r)an.

Aditz horren lagunarteko ordaiñak honek ditugu:

- Ni atzo etorri nitzuan, hi etorri hitzan, haura etorri zuan, gu etorri giñuan eta harek etorri zittuan.

Hona nesken jardunekuak:

- Ni atzo etorri nitzunan, hi etorri hitzanan, haura etorri zunan, gu etorri giñunan eta harek etorri zittunan.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1936

Erich Andrés argazkilariak ateratako argazkia da hau. Alemaniako albiste agentzia batentzako lan egiten zuen III. Reich-ean eta Espainiara etorri zen Gerra Zibilean argazki errepotaje bat egitera. Espainiako hiri eta herri mordoak bisitatu zituen bere lana egiteko. Gerrako eskenak bere argazki kameran jasotzea nahi zuen, Francoren tropak herrietan sartzen zirenean eragiten zuten sententzioa islatu nahi zuen. Zeregin horretan gure herrira ere iritsi zen 1936. urteko bigarren erdialdean.

Guztira 2.649 argazki atera zituen alemaniarrek. Behean ikusten duzuen argazki hau herritar batek berreskuratu du Salamancako artxibotik eta berak ekarri digu BARREnera. Ikusten duzuen moduan, Santa Klarako bidean aterata dago, Uztarri eta Soarte etxeen inguruan. Esan digutenez, bonbardaketak izan zirenean elgoibartarrak Santa Klarako etxe horietan babesten ziren.

Urte asko pasatu dira, baina askok gogoan izango duzue garai hura eta Gerra Zibilak laga zituen ondorioak.



ESKERTZA



2008ko urtarrilaren 15ean hil zen
*Maria Castaño Rodríguez*en sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

+ OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...
Medikuntza naturala, Bach loreak,
masajea, makrobiotika, janari biologikoak,
nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25 - Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 74 85 93 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia,
audiometria)

San Frantzisko, 21 Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

webgunea: www.irale.com

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile
linfatikoa, osteopatia, kirol masajea
(bendaje funtzionala eta "taping
neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez
etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745

(Goiz eta arratsaldez)

Jausoro, 6 behea

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, jarrera berreziketa,
prebentzioa, erlajazioa, masajea, reiki)

San Roke, 1

Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Giro ezin hobea izan zen Mintxetan LXV. Mugerza krosean

Leonard Komon eta Priscah Jepleting keniarrak nagusitu ziren

Moses Mosop keniarrak izan behar zuen aurtengo izar nagusia Mintxetan, baina Keniaren egoera politikoak ez zuen bertako antxintxikariaren etorrera erraztu. Munduko txapeldunordeak ez zuen hegazkina hartzeko aukerarik izan eta, azkenean, antolatzaileek Leonard Komon gaztearen aldeko apustua egin zuten. Masai leinukoa da eta 5.000 metroetan munduko hamabi onenen artean dago. Bera izan zen txapelduna eta krosetako arima. Bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren, Kipyego eta Cuthbert Nyasango (Zimbabwe) iritsi ziren. Emakumezkoen artean, beste keniarrak irabazi zuen. Jepletingek ez zuen hutsik egin. Lehen zuria, Juan Carlos de La Ossa (Espainia), seigarren postuan heldu zen. Lehen euskalduna berriz, Asier Cuevas eibartarra izan zen. Balantzea egin eta gero, datorren urteko aldiari begira daude.



Eneko Loiolak galdu egin zuen San Anton Torneoko finala

Sanmigeldarra 2006an ere bigarren postuan gelditu zen

San Anton Torneoak irabazle berriak ditu. Horien artean ez dago Eneko Loiola sanmigeldarra, senior mailako finala galdu baitzuen Larrañagarekin batera. Ongaik eta Mariñelarenak eraman zuten txapela emoziorik izan ez zuen partidari. 22 eta 7ko emaitzak ez du zalantzarik lagatzen. Duela bi urte ere iritsi zen finalera, orduan Baez II.a donostiarra lagun zuela.

Berrehun bat zaletu bildu ziren pasaden barixakuan Ikastolako frontoian batik bat herriko gaztea animatu nahian. Ongai aukeratu zuten, aldiz, txapelketako pilotaririk aipagarriena.

Andreu eta Mitxelena, promesetan

Senior mailako finalean ez bezala, promesak fin aritu ziren. Lehia biziaren ostean, Andreuk eta Mitxelenak jantzi zuten merezitako txapela. Atzealdean



erabaki zen finala, aurrean nahiko nahasia izan baitzen jokoa. Andreu aurrelari azkoitiarrak jarratzaile dezente izan zituen harmailetan eta Mitxelenarekin bikotea osatuz, 22 eta 19ko emaitzarekin irabazi zieten Perez-Otxotorena bikoteari. Andreu aukeratu zuten kategoriako pilotaririk onena. Bestalde, astebukera honetan, Udaberriko txapelketa izango dugu jokoan.



Bost herritar izan ziren Altitoy eski lehiaketan

Iker Leonardo, Aitor Salaberria, Arkaitz Irureta, Alberto Zelaia eta Joseba Elustondo elgoibartarrek Luz Saint Sauveur (Frantzia) inguruetan jokatu zen mendi eskiko Euskadiko Txapelketan parte hartu zuten pasaden astebukaeran. EMFK (Euskal Mendi Federakuntza) deituta, hiru-rehun bat lagun animatu ziren Altitoy 2008 proban parte hartzera.

EMAITZAK

ARETO FUTBOLA

Kenci 5 – Kanikas 3 (Euskal liga)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 18 – Usurbil 22 (Kad. 2. maila)

Oiarpe 22 – Lagunak 20 (Jub. 1. maila)

Behar zana 22 – Lagunak 20 (Senior 1. maila)

FUTBOLA

Vitoria 1 – Haundi 2 (Kad. neska)

Bergara 3 – Elgoibar 0 (Erregionala)

Elgoibar 4 – Beti Gazte 0 (Jubenilak)

Elgoibar 0 – Vasconia 1 (Neskak)

Vasconia 3 – Elgoibar 3 (Kadete)

Elgoibar 3 – Aloñamendi 1 (Haur-kategoria)

Elgoibar 5 – Urola Elg. 1 (Infantil txiki)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 26

15:45 Kenci – Kukuillaga (Euskal liga)

17:00 Elgoibar – Eskolapioak (Jubenilak)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 26

9:30 Bankoa – Arrasate (Infantil mutilak)

10:00 Aterpe – Leizaran (Infantil neskak)

10:45 H. Txariduna – Toki Alai (Infantil mutilak)

17:30 Caldereria – Urnietako (Infantil neskak)

19:00 IMH Elgoibar – Zarautz B (Kadete neskak)

ESKU PILOTA

Barixakua, 25

21:30 Lagunak – Herniope (Jubenilak 1. maila)

21:30 Lagunak – Eple (Nagusiak 2. maila)

21:30 Lagunak – Usurbil (Nagusiak 1. maila)

Patronatuko bazkideentzat

Kirol Patronatuko bazkideek Donostiako Txuri-Urdin Izotz Jauregian, deskontuak izango dituzte. Martitzenetik barixakura bi sarrera baten prezioan eskuratu ahal izango dira; astebukaeretan %20ko beherapenak sarreran, Aste Santuko oporraldietan izan ezik (%10).

I. URTEURRENA



2007ko urtarrilaren 23an hil zen, 61 urte zituela,

Begoña Mendizabal Erquiciaren oroimenez

I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, urtarrilak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



JAVIER GALDOS

Baltasar elkarteko sortzaileetako bat

Orain dela mende erdi Gazte Alaiak eta Pikupe koadrilek Baltasar Pelotazale Elkartearen elkarrekin sortu zuten. 50 bazkide sortzaile haietako bat izan zen Javier Galdos. Gaztetan Oñatitik Elgoibarrera etorritako gizon honek elkartearen inguruko hamaika pasarte ezagutzen ditu, pilota arlokoak batez ere, bera izan baita saltsa horretan gatz eta piperra.



“Lehengo giroa
oraingoaren aldean
oso desberdina zen”

Baltasar elkarteko sortzaileetako bat zaitugu. Nola gogoratzen duzu sasoi hura?

Ordura arte soziedade bat bakarrik zegoen Elgoibarren, udaletxe osteko arkupean. Jende handia ibiltzen zen. Gu txikiteoan bi koadrila ibiltzen ginen eta “soziedadea zergatik ez dugu egingo?”, esan zuen batek, eta horrelaxe.

Eta leku bila hasi zineten.

Orain berria da Baltasar dagoen lekua. Lehen korta zen, Markinara jotzen ziren zaldientzat. Oso zaharra zen, baina plaza ondoan, leku onean. “Hemen lana egin behar dugu, baina leku ederra da”, pentsatu genuen.

Baltasar pilotariarena zen lokala, ezta?

Baltasarrena zen eta bere izena ipiniko genion. Hasieran errentan hartu genuen, baina ez zen sotoa. Gero etxea bota eta berria egin behar zenean, arkitektoak esan zuen sotoa egiteko; bizirik gelditzen zen Baltasarren alabak esan zuen sotoa egiten bazen elkartearentzako izango zela.

Denbora bat elkarte gabe egongo zineten obrak ziren artean.

Bi urtean egon ginen zain, soziedade gabe.

Pilotari lotutako hainbat jaialdi antolatu izan dituzue. Beti ibili izan zara saltsa horietan?

Txapelketak eta asko. Orain atera dugun liburuan argazki asko agertzen dira eta askotan agertzen naiz pilotariekin. Beti pilotariekin.

Jende asko elkartzen zen plazan?

Asko. Asko. Afizio handia zegoen. Pilotari onak ekartzen genituen.

Kirol kontuez gain, elkartearen parranda asko egingo zenituzten...

Parrandak bai. Baina giroa oraingoaren aldean oso desberdina zen. Txikiteoa asko egiten zen, eta asko. Eguerdian eta arratsaldean izaten zen txikiteoa.

Bajatuta daude orain bazkari eta afariak?

Orain barixakuetan afariak egoten dira, batzuk betikoak. Gero batzuetan gazteak etortzen dira. Gazteak bestela eguaztenean edo partidua dagoenean etortzen dira, partidua ikusteko.

Emakumezkoak elkarte gastronomikoetan sartzen hasi dira. Zer iritzi duzu horren inguruan?

Lehenengo neska sozia Baltasarren dago! lazko asanbladan sartu zen. Badaude beste batzuk ere hasita... Orain desberdina da, gazte-ria asko dago eta zaharrak gutxiago, eta beste giro bat da.

Inauterietako mozorro lehiaketa Madalako parkean izango da aurten

Koreografiarik onenarentzako sari berezia izango da

Elgoibarko Izarra kultur elkarteko aisialdi Taldeak aurten ere mozorro lehiaketa antolatu du inauterietarako. Otsailaren 2an, zapatua, Madalako parkean herri giroko jai koloretsua izatea espero dute, eta parte hartzeko deia zabaldu dute elgoibartarren artean.

Giroa ziurtatzeko, aparteko plana jarri dute martxan. 23:30etan ekingo dio Maurizio txarangak kalejirari Plaza Handian. Ordubete geroago Madalara helduko dira eta DJ baten musika eta argiek gaua girotuko dute. Ondoren lehiaketa hasiko da. Jaiak goizeko hirurak arte iraungo du.

Taldeka zein bakarka

Lehiakideek taldeka zein bakarka parte hartuko dute. Bikoteak banakakotzat hartuko dituzte. Jantziak gain oholza gaineko koreografia ere baloratuko dute eta atal horrek sari berezia izango du. Hama sei urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.

Epaimahaian Haritz Dantzari Taldeko, Taupada antzerki taldeko eta Gazte Asanbladako kide bana izango dira.

Talderik onenentzako hiru sari egongo dira: 275, 175 eta 125 eurokoak. Banaka-kontzentzako sariak 125 eta 75 eurokoak



izango dira. Horrez gain, koreografiarik onenak 125 euro eskuratuko ditu.

Baltasar elkartearen berrogeita hamar urteko historia gogoratzeko liburua kaleratu zuten San Anton egunean



Baltasar elkarteak bere historia jasotzen duen liburua kaleratu zuten San Anton egunean. Edizioa mugatua izan da: bazkide bakoitzeko ale bana eta beste bat gehiago elkartearen bertan edukitzeko. Javi Leon, Koldo Lizarralde, Uxue Alberdi, Hasier Etxeberria eta Pello Arrieta idazleen testuak ere jaso ditu.

Baltasar elkarte 1958ko urtarrilaren 17an sortu zen, eta bere iharduera pilotarekin erabat lotuta egon da. Liburuak sorrera zelakoa izan zen azaltzen du eta elkartearen historiari errebasoa egiten dio. Argazki zahar mordoak dauzka. Elgoibarrera etorritako hainbat pelotari handiren partiden irudiak ikus daitezke.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

MAHASTI
Jose Angel Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA
Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72

Euskaldundia mila gutiak. Ailebatza.
EGA. Hizkuntz Eskakizunak.
IRAUPEA
Otsola-Saina
KASTARO BEREZIAK
Aisla: etorkinentzako ikastaroa
MATRIKULALDIA
Urtarrilaren 25etik otsailaren 6ra
IBARRI Etxe Euskaltzainen Merkataritza
Nafarroa Euzerantz 2 - ELORRIAGA
Tel.: 943 74 27 21
eigal.nazka@redal.euzkadi.net
Ordezkoa: 9.00-13.00 / 16.30-18.30

LANA

ESKAERA

- Neska, garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko, orduka edo egun osorako. ☎ **638 420 860**
- Neska prest pertsona helduak edo garbiketa lanerako. ☎ **616 230 814**
- Igeltsero edo margolari lanak egiteko mutila eskaintzen da. ☎ **664 606 102 / 605 207 081**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 530 407**
- Mutila makinista lanerako prest. Gidabaimena badu. ☎ **616 207 343**
- Neska pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **699 576 107**
- Zerbitzaria behar da astebukaeretakoa, Mendaroko taberna kafetegi batean. ☎ **943 030 150**
- Neska eskaintzen da ileapaindegi laguntzailerako. ☎ **650 280 670**
- Neska, lan egiteko prest. Paperak baditu. ☎ **610 615 116**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 742 575**
- Mutila haragitegian lan egiteko prest. ☎ **610 913 346**
- Neska garbiketa edo sukaldean laguntzeko prest. ☎ **678 939 382**
- Neska nagusiak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **686 127 137**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko. ☎ **671 476 869**
- Neska garbiketarako edo ostatuan lan egiteko prest. ☎ **676 853 028**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **943 530407**
- Neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanerako. ☎ **690 296 857**

- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **648 603 029**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako orduka egiteko. ☎ **699 813 826**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak ordu batzutan zaintzeko. ☎ **943 742201** (13:00-17:00 eta 20:30etik aurrera).
- Soldadura titulua duen peoi bat lanerako prest. ☎ **661 225 149**

ESKAINITZA

- Esperientzia duen zerbitzari edo sukaldari bat behar dugu. ☎ **696 912 902**
- Zerbitzaria behar da barran eta mahai lanak egiteko. ☎ **635 751 642**
- Zerbitzariak behar dira astegun eta astebukaeretakoa. ☎ **626 967 857**
- Zerbitzari bat behar da astebukaeretakoa. Esperientzia. ☎ **943 74 82 48**
- Enpresa batek peoia behar du. Curriculum bidali 92 posta-kutxara.
- Administrari laguntzailea behar da. ☎ **685 755 799**
- Gasolindegian astebukaera eta jai egunetan lan egiteko laguna behar da. ☎ **943 740 241**
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. ☎ **606 034 057 / 620 578 462**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Partikularra, erdigunean, 72 m², prezioa jaitzita. ☎ **660 884 060**
- Etxea salgai San Roke auzoan, hiru logela, kalefakzioa, dena kanpoaldera begira. Komunak berrituak. ☎ **696 301 694**

- Etxea salgai, hiru logela, egongela, komuna, oso argitsua. ☎ **615 769 650**
- Etxebizitza salgai Mendaron 91 m², hiru logela, bi komun, sukalde eta egongela handiak eta kaldera balokioan. Garaje eta trastoarekin. ☎ **652 757 240**
- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukalde, komuna, jakitokia, kalefakzioa, oso argitsua, bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. 2004an jasotako etxea da. ☎ **615 769 650**
- Amañan, Eibarren, pisua salgai. Bi logela, egongela, sukalde, bainua eta bi balkoi handi. Gasa eta igogailua. ☎ **618 135 429**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berriua, eguzkitsua, ganbara, baloki handia. Altzariek sal-tzen da. ☎ **628 115 677**
- 120 m² dituen pisua salgai Errosario kalean, PVC leihoak, berogailua, komun berriua, hiru logela, eta bi egongela. Ganbara, aukeran. ☎ **943 741769**

ALOKAIRUA

- Etxebizitza berri xamarra alokairuan, erdigunean, bi logela, igogailu eta garajearekin. ☎ **943 20 30 83**
- Pisua osatzeko laguna behar da. ☎ **610 458 552**

GARAJEAK

- Garajea alokairuan Urasandin, Kalamua kalean. ☎ **665 755 010**

MOTORRA

- Opel Astra, 1.600 zilindrotakoa, 16 balbula-100cv. Egoera onean. Bederatzi urte. 91.000 kilometro. 5.000 eurotan. ☎ **650 640 245**
- Opel Monterrey, 4x4, hiru ate, atzean engantzea erremolkerako, motorra 3.100 eta diesela. Egoera onean. ☎ **646 711 421**
- BMW 330i bat salgai. Aldaketa sekuentziala. ☎ **656 707 087**
- Ford Focus Guia 1.8 TDDI Berlina salgai. 2001. urtekoa. ☎ **630 151 231**
- Seat Ibiza 1,9 SDI. Bi ate, diesela, 18.000 kilometrorekin, egoera ezin hobean. ☎ **699 017 973**

BESTELAKOAK

- Sukaldea salgai, butanoko lau sudutu. Labea, bonbona eta guzti. Altuera neurriak: 88x48x83. ☎ **639 390 808**
- Ordenagailu mahai mugikorra salgai. Monitorrea zeharka. Erretiluak atera daitezke. ☎ **646 502 866**

ABISUAK

- Erdigunean brillante txikia bat duen urre zurizko edo zilarrezko belarritako bat aurkitu da ikastola parean. Galduta duenak dei dezala telefono honetara. ☎ **680 724 060**



• Zorionak, **Erika**, gaur bi urte egiten dituzulako. Musu handi bat guraso eta familiaren partez.




• Zorionak, **Mikel Vicario**, pasa den asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Maialen**, bi zenbakirekin hasi zara. Musu handi bat familiako-en eta Aroaren partez.



• Zorionak, **Ekain**, 2 urte haundi egin dituzu. Muxu handi bat familia guztiaren partez.




• Zorionak, **Ander**, gaur 8 urte egiten dituzulako. Musu asko Maialen eta Julenen partetik.



• Zorionak, **Markel**, urtarrilaren 21ean urteak egin zenituelako. Ondo pasa bihar merendolan!



• Zorionak, **Aritz**, hilaren 16an 2 urte egin zenituelako. Etxekoen eta bereziki Kimetzen partez.



• Zorionak, **Oihane**, zure lehen urtebetetzeari. Familiaren eta bereziki Asierreren partez.



• Zorionak, **Leire**, urtarrilaren 19an 12 urte egin zenituelako. Musu asko familiaren partez.



• Zorionak familia guztiaren eta bereziki Maria, Irene, Marina eta Jararen partez, 8 urte egin dituzu-eta.




• Zorionak, **Ainhoa**, zure familiaren eta bereziki Ander, Garazi eta Naroaren partez.




• Zorionak, **Beñat Iriondo**, hilaren 30ean, urtebete egin zenuelako. Aitaren, Emilio eta Milaren partez.



• Zorionak, **Asier**, eta musu erraldoia ikastolako laguntxoaren partez.



• Zorionak, **Jon**, eta musu erraldoia ikastolako laguntxoaren partez.



• Zorionak, **Urko**, hilaren 27an 7 urte egingo dituzulako. Guraso eta senideen partez.



• Zorionak, **Ane**, hilaren 28an 8 urte egingo dituzulako. Guraso eta senideen partez.



• Zorionak, **Ifigo Ayesta**, 10 urte egin dituzu-eta. Familia guztiaren partez muxu handi bat.



• Zorionak, **aitzak Mikel**, atzo urteak egin zenituelako. Familiako-en eta bereziki Iratiren partez.



• Zorionak, **Julen**, etxekoen partez, urtarrilaren 8an 4 urte egin zenituelako.



• Zorionak, **bikote xelebrenari**, urteak egin dituzuelako, 13 eta 6 hain zuzen. Makina bat musu zuentzako gurasoaren partez. Ondo pasa urtea eta ondo segilko.



• Zorionak, **Paulo eta Iker**, urteak egin zenituztelako hilaren 15ean eta 17an, hurrenez hurren. Musu asko etxekoen partez.



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakaziaz: egur, aluminio, P.V.C.
Pintaz orokorra

San Roke, 7 behean
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modaleku
Tel. 943 740 578



Buleatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

OKINDEGIA

27 igandea **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 25 Garitaonaindia
- 26 Etxeberría (Santa Ana)
- 27 Etxeberría (Santa Ana)
- 28 Fernandez
- 29 Yudego
- 30 Zabaleta
- 31 Etxeberría (Errosario)
- 1 Ibañez

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.neten

25 *barixakua*

17:30 Sexu tailerra

Biluzik Sexologia Zerbitzuak antolatuta, 9-12 urte bitartekoentzat. Ludotekan.

21:00 Gure Bide Elkarteko Batzar

Orokorra
Bazkideentzat.
Gure Bide Elkartean.

26 *zapatua*

11:00 IMHko Ingeniaritza Eskolako ate irekien eguna

Eskola erakutsi eta informazioa eskainiko da. Ikasle ohi baten esperientzia entzuteko aukera. IMHn.

15:00 Txuri Urdiñera irteera

Irteera Ludotekatik.

27 *domeka*

18:00 Gaztelekuko Batzarra

Gaztelekuan

1 *barixakua*

16:00 Bakearen Eguna

Pilar Ikastetxean.

22:30 il Dance Sinuose

Kultur Etxeko sotoan.



«Beowulf»

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:00-22:15
27, domeka: 19:00-22:15
21, astelehena: 21:30

«Donkey Xote» (euskaraz)

27, domeka: 16:30
20, domeka: 16:30

«La torre de Suso» (Z.K)

31, eguna: 21:30

I. URTEURRENA



2007ko urtarrilaren 25ean hil zen, 83 urte zituela, **Sole Albo Gainzaren** oroimenez I. urteurreneko meza izango da, gaur, ostirala, arratsaldeko 19:00tan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA



2008ko urtarrilaren 19an hil zen **Anton Korta Bereziartuaren** sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gure gomendioa

Il Dance Sinuose

Barixakuan, otsailak 1, 22:30ean Kultur Etxeko sotoan

Aurten Sinuose dantzarako gogoarekin dator. Hamalau urte daramatza Sinuosek inauteri garaian ekitaldiak eskaintzen. Asko dira Sinuoseren kontzerturik gabe inauteriak ulertzen ez dituztenak, urtero

saio honen zain egoten direnak. Saio berezia izango da aurtengoa ere, desberdina. Dantzarako musikaren ikuspuntu berezia eskainiko digute. Musika egiten disfrutatu egiten du bikote honek eta jendeak eurekin gozatzea da helburua. Il Dance Sinuosekin hitzordua duzue datorren barixakuan Kultur Etxeko sotoan.



250

filmak

99 07

zinekluba bestelakoZINEA

ongarri zinekluba elgoibarkoudala gipuzkoako forualdunia ongarrizinekluba elgoibarkoudala

Malape **taberna**
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

malape
Elgoibarko 741345

URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Liberty
Aseguruak

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

herritik kanpo



mikel sastre

Zamorara joan aurretik beti Elgoibarren bizi izan da 21 urteko gaztea. Hiru urte daramatza Gaztelako herrian irakasle-ikasketak egiten, eta bertan jarraitzeko asmoa du, gutxienez beste urtebete. Bere jaioterritik lagunak, familia eta herriko jaiak botatzen ditu faltan, azken horiek galdu egiten di-tuelako. Bere ustez, Zamorak eta Elgoibarrek ez dute antza handirik.

“Zamorako eliza erromaniko gehienen izenak badakizkit”

Nolatan heldu zinen Zamorara?

Txikitatik etorri izan naiz gurasoekin, eta Unibertsitatean ikasketak egiteko aukera izan nuen.

Negua gogorra egingo zitzazun, ezta?

Bai, hemen pasa ditudan lehenengo bi ne-guak oso gogorrak izan dira; izugarriko hotza egin zuen. Aurtengoa ez da hain go-gorra izan, ez du hotz handirik egin. Bi edo hiru egunetan bakarrik izan dugu sekulako hotza.

Zamorak eta Elgoibarrek badute antzeko-tasunik?

Oso gutxi, baina Zamora hiri txikia izanda azkenean jende askok ezagutzen du elkar, Elgoibarren bezala.

Han geratzeko asmorik baduzu?

Beste urtebete geratzen zait ikasketak amaitzeko. Gero ez dakit zer egingo du-dan. Oraindik ez dut etorkizunean pentsa-tu.

Zer egin liteke Zamoran aisialdian?

Hiriko alde zaharra ikusi, probintziako he-


riak bisitatu, Portugalera joan erosketak egitera merkeagoa delako, museoak bisitatu... Astebukaeretan parranda onak egin daitezke, taberna onak daude aukeran, mota guztietakoak. Oso pintxo onak daude, eta badago ohitura tabernaz-taberna pintxoak jaten ibiltzeko.

Zer dago ikusteko?

Oso aberatsa da erromanikoaren aldetik: eliza eta eraikin zahar asko ditu. Alde zaharra oso polita da. Aste Santuan ere prozesio ugari egoten dira eta estilo propioa dute. Zamorak Aste Santuan hiru aldiz handitzen du bere biztanleria, eta ia ezin da kaletik ibili. Kale guztiak jendez gainezka egoten dira prozesioak ikusteko eta leku ona hartzeko ordubete lehenago egon behar duzu lekuan.

Erromaniko ikusgarria du. Bazenekien 24 eliza erromaniko dituela?

Bai, artea gustuko dut, eta ia denak bisitatu ditut. Gainera, badakizkit eliza gehienen izenak.



Alba, aurreko alean gaizki jarri genuen zure abizena.
Alba Esnal dira zure izen-abizenak baina okerra egin genuen.

Barkatu hankasartzea.

Zorionak lehiaketa irabazteagatik!

BARREN astekaria



TEXTIL HOGAR · KOLTZOI DENDA

LAGUNAK

%15

BEHERAPENA

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com

ingeniarietza
imh

IMH Ingeniaritza Eskola

**Badakizu Elgoibarren
Unibertsitate mailako
ikasketak ditugula?**

Ate irekiak:

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

Urtarrilak 26: Goizeko 11:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 82 64 - ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola



ESTREINALDIA!!

ESTREINALDIA!!

ezker-eskuma



**Otsailaren 8an
22:15ean
Herriko Antzokian**

ANIMALIAK

Umeentzako antzerkia

"El retablo" konpainia

Otsailaren 10ean
16:30ean Herriko Antzokian



Kultura saria



Foru Aldundia



Eusko Jaureritza



SAREA